

iruner

185. zenbakia. 2010eko abuztua



Irun, gero
eta hiri
turistikoagoa



[Ricardo Garciak](#)
[jendearen](#)
[laguntza eskatzen](#)
[du 2. mailara](#)
[itzultzeko](#)



Euskal Jira 2010



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi
LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.





Olatu gainean

Traineru sasoiaren inguruko berri guztiak. **Asteartero 21:00etan**

Errepikapenak: Asteartea, 23:00. Asteazkena, 17:00.

Osteguna, 23:00. Ostirala, 19:00. Larunbata, 19:00. Igandea, 21:30.



Laguntzaileak



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru
Aldundiko Gizarte eta
Erakunde
Harremanetarako
Departamentuaren
laguntza jaso du.



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren
laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304
IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxa: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Azaleko argazkiak: Iñaki Larrañaga
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

Aurkibidea

- 4.- **Lapikoan:** - Irunen izaera turistikoa
- BidasoaFolk 2010
- 8.- **Aurrez aurre:** Mariano Vazquez,
Vazandu, margolaria
- 10.- **Lapikoan:** - LUKTen aldizkari berria
- Bidasoa kaleko aztarna
arkeologikoak, ikusgai.
- 12.- **Kirolak:** Ricardo Garcia,
Real Unionekeo presidentea.
- 15.- **Gai Nagusia:** Euskal Jira 2010
- 19.- **Bi hitzetan:** Berri laburrak
- 23.- **Kontsumitzaileei zuzendutako
aholkuak**
- 24.- **Kuttun gabinete psikopedagogikoa:**
- 26.- **Eleak iruten**
- 27.- **Lerroz lerro:** Patxi Zubizarreta
Mundua lo dagoen bitartean
- 28.- **Kultur Agenda**
- 30.- **Gazte Informazio Bulegoko berriak.**

OLAIZOLA

Immobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxa: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta
Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza

Cristina Gutierrez. Bidasoa Turismoko zuzendaria



Turista finlandiar bikote bat Irungo bulegoan, informazioa bildu ondoren.

“Irun turistentzat igarobide hutsa ez izatea lortzen ari gara”

Turistentzat, Irun erosketak egiteko hiria edo igarobide hutsa izan da aspaldian. Duela 8 hilabete zabaldu zen Luis Marianoko bulegoak, aipatu izaeraz harago, gune turistiko ere bilakatzea du erronka.

- Euskadiren sustapen turistikoa atzerrian *Espainia* markaren barruan egingo da. Akordioak hautsak harrotu ditu. Zer iritzi duzu?

Nik uste dut onuragarria izango dela. Aurrekontu arrazoiak tartean, oso zaila gertatzen zaigu Alemania, Estatu Batuak edota Italia bezalako herrialdeetan gure eskaintza aurkeztea; Espainia, berriz, ezagunagoa da. Dena dela, Euskadi ere bestelako ekintzen bitartez sustatuko dela pentsa-

tzen dut; hala nola, bidaia-agentzia handizkariei zuzendutako aurkezpen saioen bitartez.

- 2010ean Euskadira sekula baino turista gehiago etorri dira orain arte. Zer datu duzue Bidasoari dagokionez?

Urte hasieran datuak txarrak izango zirela beldur ginen, baina apiriletik aurrera hobera egin du. Kontuan hartu orain arte uztailearen erdi aldera arte ez zirela hotelak betetzen; aurtan, ordea, Hondarribiko Blues Jaialdirako (8rako) ez zegoen plazarik. Zalantzarik gabe, horrelako ekintzen eragina nabaria da, Donostian antolatzen direnak barne; esaterako, Donosti-cup futbol lehiaketa.

- Eta Iruni buruzko emaitzak?

Urtarriletik ekainera bitarte Irungo bulegoan 4.300 kontsulta egin dira. Iazko uztailetik iraileira arte Oiasso Museoa zegoen informazio-gunean 800 bisitari artatu zituzten. Hemendik aurrera zifrek gora egingo dute, Santiago Bidea egitera datozen erromesengatik.

- Beraz, merezi izan du bulego berria eraikitzeko inbertsioak?

Bai, emaitzek harrituta utzi naute. Lan piloa eginen dute bertako turismo teknikariek. Galdera ohikoenak honako hauek dira: zerbitzuen ordu-tegiak, ekintzak, dendak, azokak, Irunen zer bisita daitekeen, eta inguruan egin daitezkeen ibilbideak. Santiago Bideak jende ugari erakarri du; ondorioz, kontsulta eta egonaldi kopuruak handitu dira.

Halaber, bulego berria hiriko ostalaritza sektorearentzat pizgarri bat izan da, argi ikusi dutelako irudi turistikoaren aldeko apostua egiten ari garela. Erronka horren partaide sentitu dira; areago, Irungo Ostatuen Elkartearen ere sortu dute.

- Muga-hiria izaera Irunen erakargarritasun bat da oraindik?

Bai, Iparraldera igarotzeak xarma dauka bisitariarentzat oraindik orain. Batez ere merkataritza

eta, gero eta neurri handiagoan, gastronomia bilatzen dute turistek Irunen; baina aldeketa garrantzitsua lortzen ari gara, alegia, igarobide hutsa ez izatea, baizik eta bisitatzeko hiria.

- Bidasoako turismoaren hazkundearen arrazoien artean, zein aipatuko zenuke?

Lehen sustapena egiten ez genuen tokietan egin dugu; adibidez, Gaztela eta Leonen edo Andaluzian. Euskadiren egoera gatazkatsua dela eta, euskal kontuekiko nolabaiteko gaitzespena nabaritzen genuen lehen. Euskadik irudi txarra zuen jendartean, errealitatearen ezagutza ezagatik.

Kontrako faktoreetako bat, aireportuak dagoneko ez dituela Andaluziara hegaldiak eskaintzen. Izan ziren garaian gorakada nabaritu zen.

- Orduan, zertan nabaritzen da krisia?

Orobat, Euskadira datorren turistak ez dakar ogitartekoa patrikan. Orain arteko eskeman, ordea, aldeketa ematen ari dira: Paradorea bezalako goi mailako hotelei gehiago kostatzen zaie betetzea, baina Irungoak aiseago betetzen ari dira. Bestalde, jatetxeetan lehen baino bezero gehiagok eguneko menua eskatzen dute, kartako plateren ordez.

Helburua: erromesak

Bidasoara buelta daitezela

Done Jakue urtea izanda, Santiago Bidea egiteko Irundik abiatzen diren erromesen gorakada argi nabaritu du Bidasoa Turismok. "Erromes horiek, aukera dutenean, Bidasoara turista gisa itzul daitezela lortu nahi dugu", nabarmendu du Cristina Gutierrezek. Halaber, sustapen ekintzen artean, eskaintzak sektoreka egitea du xede; hala nola, gastronomikoa edo paseiatzeko bideena. Erromatar Hirien Sarea bultzatzea ere beste ildoetako bat da.

Bidasoa folk

Irun
Hendaie
Hondarribia

20, 21, 22
A buztuak
gosto
OÛT 2010

Hondarribia 2008
19:30 h. Kiriko (Luzak) San Pedro Nalea
21:00 h. Joao Afonso (Portugal) Gaipekoa Herri
22:00 h. Urbalia Rurana (Valentzi) Okulkoia F&E

Hendaie 21/08
21:30 h. Joka Negrau y grupo (Irlandia) F&E Euzkadi Gaiturjatu
22:20h. Maira Andrade (Cabo Verde) Fontón Garzela Zaina
23:50h. DJ Lari Baxaxias (Zaragoza) F&E Euzkadi Zalar

Irun 20/08
20:00 h. Owerin y grupo (Bretainia) F&E Euzkadi Ur
21:30 h. Alan (Irlandia) Fontón Euzkadi

Bidasoa, folk musikaz blai

Mundu zabaleko
folk musika

Bidasoara isuriko da
abuztuaren 20tik
22ra. Heldu da
Txingudiko hiru
hirietan burutuko
den udako kultur
ekitaldi nagusia.

Hamargarren urtez Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak Bidasoa Folk jaialdia antolatu du, folklore tradizionalen nahiz modernoan sustraitutako musika dastatzeko aukera.

Irun, Hondarribia eta Hendaia munduko hainbat txokotako eta motatako herri musikaren topaleku izango dira. Horien artean Euskal Herriko ordezkari bat izango da, alegia, Kiriko. Portugaldik Joao Afonso etorriko da gurera, eta, Valentziatik, Urbalia Rurana taldea. Abuztuaren 21ean, larunbata, Hendaia izango da agertokia. Bertan, *Uharteetako Musika* izenburupean, Reunion uharteko eta Cabo Verdeko aireak entzungo dira, baita DJ ospetsu baten nahasketak ere. Azkenik, igandean, emanaldiak Irunen burutuko dira. Zelten Gaua deiturikoan Bretainiako talde batek eta Irlandako beste batek joko dute mugarik gabeko musika.



EGUNA	HIRIA	LEKUA	ARTISTA
Abuztuak 20, ostirala. 21:00	HONDARRIBIA	Gipuzkoa plaza	Joao AFONSO (Portugal)
Abuztuak 20, ostirala, 19:30	HONDARRIBIA	San Pedro kalea	KIRIKO (Euskadi)
Abuztuak 20, ostirala. 21:30	HONDARRIBIA	Gipuzkoa plaza	URBALIA RURANA (Valentzia)
Abuztuak 21, larunbata. 21:30	HENDAIA	Gaztelu Zahar frontoia	UHARTEETAKO MUSIKA LEILA NEGRAU eta taldea (Reunion uharte) MAYRA ANDRADE (Cabo Verde) DJ Lord Sassafras (Zaragoza)
Abuztuak 22, igandea. 20:00	IRUN	Euskal Jai frontoia	ZELTEN GAUA GWENNYN eta taldea (Bretainia)
Abuztuak 22, igandea. 21:30	IRUN	Euskal Jai frontoia	ALTAN (Irlanda)

Mariano Vazquez Andueza, VAZANDU, pintorea

“Pintatzen ari naizenean ez naiz oroitzen pertsona adindua naizela”

Laurogeita hamar urte eduki arren, pintzelak egunero dantzarazten ditu estudioan; begia zorrotz, eskua irmo. Nafarroako Erron jaioa, Irunera umetan etorria. Oroimena duenetik pinturak liluratuta dauka. Dario de Regoyos Parisera bidean zihoala, Irunek erakarrita, bertan bizitzen geratu zen, gerora Vazanduren familiaren etxea izango zen hartan, hain zuzen. Patuaren jokoak.



- Aurtengo San Martzial jaietako agurra egin zenuen. Nolako oroitzapena duzu?

Ohore handia izan da eta sekulako poza sentitu nuen. Oraindik ere pixka bat urduri nago!

- Txikitatik erakarri zintuen pinturak.

Nolakoa izan zen zure lehen harremana artearekin?

Bai, umetatik pintatu dut. Futboleko jokatu beharrean pintatzera joaten nintzen; batik bat marrazkiak egiten nituen, arkatz soil batez. Beti izan nuen gurasoen adorea.

- Zure irakasleen nolako oroitzapenak dituzu?

Irungo Pintura eta Marrazki Akademian ikasi nuen. Gervasio Larzabal izan nuen lehenbiziko irakaslea; oso maisu aditua eta pertsona paregabea. Garai hartan Gaspar Montes Iturrioz ere eskolan irakasle zegoen.

- Lanbidez beiragilea izan zara, gaztetatik, gainera.

Hamairu urte nituela, Hendaiako Maumejean beirategi etxean ekin nion lan egiteari. Frantziako enpresarik onena zen. Mundu zabaletik enkarguak jasotzen zituen. Ni beirategiak pintatzeaz arduratzen nintzen; alegia, alde artistikoaz eta aldi berean zailenaz. Mundu mailako maisuekin jardun nuen. Beti gozatu izan dut neure lanaz.

- Baina Gerra Zibilak mundu hura guttiz ezabatu zuen.

Bai, gerrak miseriazko eta sufrimenduzko bizitza ekarri zidan. Hamazazpi urte nituela, Ebroko frontera eraman ninduten. Hura sarraskia! Preso hartu eta Urduñako kontzentrazio-esparrura eraman ninduten. Gaitzerdi! Gerra ostean Burgosen, eta ondoren, Afrikan soldadu ibili nintzen, halabeharrez. Mapak egitea zen nire zeregina; baina, lan hartaz gain, bizirauteko bestelakoak ere egiten nituen, erretratuak militarrentzat, esaterako. Burgosen, dendetako erakusleihoetan ipintzeko salneurrien zenbakiak ere marraztu nituen! Egia esan, beti atera naiz aurrera marrazkiari esker.

- Aurrerago Artistas Vidrieros enpresan



lan egin zenuen, luze, lan egin ere.

Zeintzuk izan ziren lan garrantzitsuenak?

Gogoan dut Guatemalarako Via Crucis bat, hilabeteak eman zizkidana. Galiziarako lan asko egin nuen, tartean, Pontevedrako katedral zaharreko arrosa-leihoak. Partikular eta enpresentzat ere beirategi anitz egin dut. Beirategiak puri-purian zeuden garaian, dotoretasun ikutua ematen zuten.

- Baina, zure lanbidez gain, denbora librean koadroak pintatzen zenituen.

Pintatzeko beharra al duzu?

Pintatzea bizi-beharra dut, pintura magia da. Lanean ari naizenean ez naiz oroitzen pertsona adindua naizela. Milaka koadro margotu ditut, irudi mota askotarikoak eta teknika anitzekoak. Paisaia ugari pintatzen badituz ere, erretratu kopurua ez da urria.

- Menchu Galek zioen beti pintatzen ari zela, irudimenetan ere pintatzen zuelako. Zuri gertatzen zaizu?

Bai, niri ere gertatzen zait! Paisaia bat ikustean koadroa ikusten dut. Orduantxe hasten naiz nola pintatuko nukeen pentsatzen. Buruan gertatzen zait irudia.

LUKTen aldizkari berriak Irungo historiari buruzko 18 lan bildu ditu

Luis de Uranzu Kultur Taldearen aldizkari berriak azken 3 urteotako Iruni buruzko ikerketa historikoaren uzta bildu du. Guztira 18 lanez osatutako argitalpena joan den uztailaren 15ean aurkeztu zuten Kultura zinegotzi Fernando San Martinek eta LUKTeko Jose Monjek eta Mertxe Tranchek.

Luis de Uranzu taldeak azken urteotan eman dituen bi sariren emaitza dakar: Mertxe Tranchek Jose Peñari buruz idatzitakoa eta *Josefina Urtizberea: un largo camino hacia la prosperidad* izenburukoa, Ana Galdosena. Bi ikertzaile hauena ere bada Olazabaldarren gaineko artikulua. Halaber, Pio Perezek herri medikuntzaz apailatutako lana irakur daiteke. Bestalde, aldizkarian, Irunen burutu diren hainbat egitarautako 9 hitzaldi argiratu dira, honako gai hauei buruz: Policarpo Balzola, Aquilino Rodriguez, Oteiza eta Pirinioetako Bakea. Era berean, aipatzekoak dira beste zenbait kolaboratzaile: Javier Sagarzazu, Iñaki Garrido, Patxi Arizabalo, Andoni Esparza eta Aitor Hernandez; azken hau Serapio Mugica bekaren eta LUKTen sariaren irabazlea da.



LUKTen aldizkari berria salgai dago kioskoetan eta liburu-dendetan.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK,
ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK,
KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11
E-mail: fotokop@telefonica.net

Bidasoa kaleko aztarna arkeologikoak, ikusgai

Oiasso Museoa Bidasoa kaleko orubean 2008 eta 2009 urteetan egin zen indusketa arkeologikoan aurkitutako aztarnak urriaren 31ra arte erakutsiko ditu. Erakusketak *A granel* izena du, “helburua arkeologoena lana erakustea denez, bildu zituzten 50.000 piezetako batzuk zeuden bezala aurkezten direlako”, azaldu zuen Mertxe Urtega zuzendariak inaugurazio ekitaldian. Aztarna gehienak aldamioren gainean kaxatan sailkatuta daude. Askotariko piezak daude; hala nola, eraikuntzako materiala, anforak eta beira. Beheko aldean aurkitutako nabarmenak ipini dituzte, tartean, Erromatik ekarritakoak izan litezkeen kolorezko beira zatiak, iruteko erabiltzen ziren pisuak, eta abar. Zuzendariaren esanetan, “lan asko dago egiteko: datatu, jatorria zehaztu, buztin-ore motak aztertu... Materiala pasarte historikoak zehazteko baliagarria izango da”. Etorkizunean pieza batzuk Museoko bilduman sar litezke; besteak Foru Aldundiaren Gordailu biltegian gordeko dira, ikertzaileen lanetarako eskuragarri.



Oiasso Museoa jarri den aldamioren gainean ikusgai diren aztarnak.

Gabiria kalea, 15 - 179
Katea auzoa - IRUN
Tel 943 63 16 32 Faxa
943 63 16 02

- SONORIZAZIOA
- ARGIZTAPENA
- GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ERREALIZAZIORAKO PLATOAK

- BIDEO-ZINEMA-PUBLIZITATEA
- BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- PANTAILAK

Ricardo Garcia, Real Unioneko presidentea

“Real Unionen maila jendearen babesaren baitan dago”

Ricardo Garciari ez zaizkio kemena eta ilusia eskas 2. mailan bueltan jokatzeke behar den lana aurrera eramateko. Alabaina, jomuga erdiesteko, jendearen laguntzari giltzarri deritzo.

- Zer da gogorragoa: mailaz jaistea ala igozteko atarian geratzea?
Egia esateko, biak. Bigarren mailan irautea zaila da; izan ere, gure aurrekontua txikia da eta, oro har, baldintzak, okerragoak. Gainontzeko taldeek mota guztietako laguntza handia dute. Gainera, Donostiaren indarra Irunen kontrako faktoreetako bat da. Halere, kategoria zail horretan duintasunez lehiatu gara.



-Zer ikasi duzue 2.mailan?

Futbolaren inguruan dagoen hedabideen mundu hori hurbi-letik ezagutzea eta 2. Bkoak ez diren estadioetan jokatzeko oso garrantzizkoa gertatu da.

- Esperientzia faltak hutsegiteak ekarri dizkizue?

Ez dugu taldea behar zen lekuetan indartu. Apalagoak izan beharko genuen. Bigarren itzulian argi ikusi da hori, non 8. egin dugun.

- Aurredenboraldia hasida, baina taldea ez dagoosaturik oraindik.

Hogeita hiru urtez azpikoko 3 jokalarik eta bi senior falta zaizkigu. Zelai erdia sendotzen badugu, liga hasteko ongi egongo garela uste dut.

- Nola ikusten duzudenboraldia, igotzeaposible dela jakinda?

Joan den denboraldia azken 45 urteotako onena izan da. Gainera, bazkide kopurua asko handitu da eta txuri-beltz sentimendua berpiztu da. Igotzeko abiapuntu onean gaude eta posible dela jakitea lagungarria da.

- Eta egoeraekonomikoa?

Hobeki gaude, zorraren parte handi bat ordaindu dugulako. Bizpahiru urteren bueltan kitatuko dugulakoan nago.



“Reala 1go mailan egotea denontzat onuragarria da”

Bigarren mailan egoteak Iruntzat gastua besterik ez diola ekarri uste ohi da; baina diru-sarrerak ere izan dira. Kontuan hartu partiduetara kanpotarrak etorri direla, eta hedabideek zabalduak berrietan Irun aipatzen zela etengabe. Real Unioni esker, gaur egun Irun ezagunagoa da.

- Real Unionekbazkideak gal litzake?

Taldea ongi badoa eta igotzeko ilusioa mantentzen bada, datorren urtarrean (abonoak berritzeko garaian) bazkideak baja ez ematea espero dut; areago, bazkidetza berriak

espero ditut. Real Unionek bigarren mailan jokatzeko lor dezagun, jendeak lagundu behar du; alegia, taldea kategoria batean nahiz bestean egotea jendearen babesaren baitan dago.

- Realak 1. mailaberreskuratu izanaoztopo bat al da?

Ez, jendea Real Unionetik leiala da, Realak dagoen kategorian dagoela. Gu Realaren igoeraz pozten gara, futbol gipuzkoarra bideragarriago da eta. Denontzat onuragarria da.

- Nolako daharrobiaren osasuna?

Harrobiaren osasuna ona da. Gure teknikariak kualifikatuak dira; eskolan 150 neska-mutiko dabilta eta, guztira, Klubean, 450 bat.

- Hamar urte emandituzu presidente.Jarraituko duzu?

Nik uste dut 10 urte nahikoa dela eta beste batek lekukoa hartu beharko lidakeela. Presidente bat ona da presidente izateari uzten dionean. Karguak pertsonalki eta familia aldetik asko higitu nau, baina merezi izan du. Duela 10 urte Kluba 3. mailan zegoen, 700 sozio zituen eta aurrekontua 288.000 eurokoa zen. Gaur egun 4.000 bazkide ditugu eta 1,5-2 milioi euro inguruko aurrekontua.

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA
(Parrokian)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalean)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plazan)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL Gozo-denda
ELKAR liburudenda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA Kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikan)

HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen k.)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO Taberna
MANOLO Taberna
SARGIA Taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S. Pedro
kalea)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE Paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koan
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA

(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA Taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale zaharra)

ANTZARAN

NEKANE Paper denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Urantz,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKAR-
TEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea)
AUZO ELKARTEA
(Loiolako Iñigo kalea)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17)

Euskal Jira 2010



Desfilearen buruan, mikeleteak eta erraldoiak.



Urtero legez, Hendaiaiko Euskal Jirako gurdi batek parte hartu zuen.



Aspaldidanik Hendaiaiko kultur eragilea den Zarpai Bandaren gurdiak Irungo desfilea ireki zuen.



Hendaiaiko gurdiaren atzetik, Lapurdiko dantzak, Lekorneko taldearen eskutik.



Ohiko euskal giroak Irungo kaleak alaitu zituen.



Euskal Kirolak taldearen gurdian, saskigileak lanean aritu ziren.



Euskal Kirolak girotuz, Lesakako trikitilariak joan ziren.



Behobikoek auzoko trinketea irudikatu zuten, Irungo zaharrena (1934), hain zuzen.



Ezkerrean, Meakakoen gurdia. *Bilera* izeneko lanaren bitartez 60ko hamarkadako dantzaldi haietako bat ekarri zuten gogora. Musikariak, nola ez!, Semper anaiak. Eskuinean, bilerako bikote bat.



Ezkerrean, dantzari bat. Eskuinean, Anakako hiru elkarteren gurdia. Baserriko jardueretako bat aukeratu zuten: odolkgintza. Txerria hil ondoren hainbat jaki prestatzen dira. Horietako bat da odolki goxoa.



Primerako eguraldiak festaz gozatzeko aukera pare-gabea eskaini zuen.



Ramuntxo Trinketekoek Los Xey musika taldeko Pepito Yanciri omenaldia egin zioten.



Katekoek auzoko baserri garrantzitsuenetako bat gogora ekarri ziguten, Eskortzakoa, hain zuzen. Bertakoen ondorengoa den Jose Antonio Ibargoienek eta seme Javierrek erremintarien lana erakutsi zuten. Eskuinean, Ibargoiendar neskatoak.



Haurrak ez ezik, edari sorta ederra zeraman astoak kalesan, beroari aurre egitea ezinbestekoa baitzen!!



Hirukanale inguruan ohikoa zen jendea angula bila ibiltzea. Hori izan da Santiagokoan aurtengo lana.



Anakako elkarteek jendetza bildu zuten. Aurretik Auntxakoak zihoazen, musika jotzen. Ez zuten etenik!



Kemen Dantza taldekoek, dantzak bizi duen sasoi ona erakusteko, erromeria egin zuten.



Hainbat herritako trikitixa taldeak urtero etortzen dira Euskal Jira girotzera. Eskuinean, Ramuntxo Trinkete Klubekoak gurdia.



Meakako bilerako bi parte-hartzaileak. Lehen planoan, auzoko Peio Urtxegi.



Iurretako dantzariak.

Txingudi eta Mendibil merkataritza guneek euskara bultzatuko dute

Mendibil eta Txingudi merkataritza guneek hitzarmen bana sinatu dute Irungo Udalarekin, haien establezimenduetan euskararen erabilera areagotzeko helburuz, sinatu ere.

Txingudiko arduradun Lasagabasterrek dioenez, proiektu berri hau merkataritza gunearen kalitate/bikaintasunean beste urrats bat da; izan ere, euskara bera Euskal Herriko enpresek beren **Gizartearekiko**

Erantzukizun Korporatiboan gehitu beharreko beste elementu bat denez, bada, Txingudi Merkataritza Gunean ere berdin ari dira.

Irungo Udaleko Euskara Arloak eta Merkataritza Ordezkaritzak sustatutako hitzarmena "Irun=2+1" egitasmoaren ondorioa da, hiriko merkataritzan, ostalaritzan eta enpresa pribatuetatik kudeatzen diren hiritarrei zuzendutako zerbitzuetan euskararen normalizazioa lortzen laguntzeko sortu baitzen egitasmo hura.

Sinatutako hitzarmenetan jasotakoaren arabera, merkataritza guneen Hizkuntza Normalkuntza Plan bana diseinatuko da. Proiektu bakoitzean, hizkuntzak kudeatzeko eta euskararen erabilera areagotzeko xedez, hainbat neurri diseinatu, aurreikusi, exekutatu eta ebaluatu egingo da; esaterako, irudi eta errotulazioan, bezeroari eskaintzen zaion arretan, formazioan, motibazioan, eta abarretan. Neurri horiek guztiak bateragarriak izango dira



establezimendu bakoitzaren komertzio estrategiekin.

Hala, Irungo enpresek ezarritako hizkuntza eskakizunak bete daitezzen, Irungo Udalak "Irun=2+1" egitasmoaren

bitartez laguntza eskaini nahi die, enpresa haiexen zerbitzu kalitatea hobetzearen eta Irungo hiritarren hizkuntza eskubideak bermatzearen.

Hitzarmenek betebeharrak zehatzak ezarri dizkiete sinatzaileei. Euskara Arloak euskararen erabilerrako baliabideak, hizkuntza aholkularitza eta itzulpen zerbitzuak eskainiko dizkie, bate-tik, eta "Irun=2+1" egitasmoan parte hartu eta hizkuntza normalkuntzan aurrera pasuak ematen dituzten enpresa eta saltokien promozioa ere egingo du, bestetik. Merkataritza guneek, bestalde, plangintzaren diseinu, inplementazio eta ebaluazio faseetan Irungo Udalarekin kolaboratzeko konpromisoa hartu behar dute, eta konpromisoak dakar, baita ere, merkataritza guneetan kokatuak dauden establezimendu guztien parte-hartzea plangintzan. Plangintzek hiru urteko epealdia dute.

Luis Mariano gogoan, heriotzaren 40. urtemugan

Luis Mariano tenore irundarra zendu zela 40 urte bete diren honetan, ekitaldi egitarau berezia burutzen ari da. Uztailaren 14an, heriotzaren urtemuga egunean, Irungo Udalak antolatuta, Luis Marianoren lorategietan dagoen estatuaren inguruan jende anitz bildu zen ilunabarrean, tenore handia gogoratzera. Bertan egin zen lore-eskaintza, eta Marianoren piano-jole izandako Jose Luis Azkuek eta Angel Pazos abeslari lirikoak kantu ezagun zenbait interpretatu zuten.

Egun hartan ere, *mariano zale* ugarik parte hartu zuten artista lurperatua dagoen Arrangoitzeko herriari antolatutako omenaldi-ekintza hunkigarrietan. Bestetik, Luis Marianoren zenbait pelikula proiektatu dira uztailaren, eta kontzertu bat



Arrangoitzeko kanposantuan, Irungo lehen alkateorde Miguel Angel Paezek eta bertako auzapezak tenorearen hilobian lore-eskaintza egin ondoren, Luis Mariano Lirika Elkarteko Jose Luis Azkuek eta Angel Pazosk kantalditxoa eskaini zuten.

izan zen, Irun Hiria Musika Bandaren eskutik. Oraindik bi ekintza burutzeke daude: abuztuaren 13rako, Hondarribian, Luis Mariano Elkartek antola-

tu dituen mahai-ingurua eta kontzertua, eta Irungo Amaia KZan azaroaren 26an eskainiko den errezitala.

Irungo “Ezezagunok” antzerki taldea, saritua

Irungo “Ezezagunok” antzerki taldeak Donostiako Gazte Antzerkiaren XII. Erakustaldian sari bat lortu du. Joan den uztailaren 1ean burutu zen sari banaketan, irundarrek Epaimahaiaren Aipamen Berezia lortu zuten, senior kategorian, Jose Luis Marques Lledoren *El Kiosco* izenburuko lanarengatik.

Ana Perez, Luisma Moreno eta Miren Etxeberria taldearen zuzendariak dira.

“Ezezagunok” taldeak *La Tía Juana* obra antzeztu zuen Irungo Gazte Antzerkiaren azken bi edizioetan.



Santiagoko skate pista eta haur parkea, bukatuak



1992. urtera arte mugako aduanen instalazioak kokaturik zeuden Santiago zubi ondoko orubeak erabilera berria dauka jada, bertan atondu baititu Irungo Udalak skate zaleentzako pista eta haur parkea. Miguel Angel Páez Hiri Garapenerako eta Obretako udal ordezkaria pozik agertu da emaitzarekin, "irundarrentzat gune enblematiko bat berreskuratzea lortu dugulako".

Obra gauzatzeko, 1.015.355 euro inbertitu dira. Haurrentzako jolasgunea 1.638 m² dauka, eta honako elementu hauek: plaza-gune bat, haurrentzako jolasgunea eta egoteko hainbat leku. Pasaguneak ere badira, gune berria arrapala eta eskailera bitartez ibaiaren ertzeko beheko pasealekuarekin lotzeko egin direnak. Parkearen eta Iparralde hiribidearen arteko bidegurutzean, komun publiko bat jarri da.

Skate-a praktikatzeko pistari dagokionez, 2.094 m²ko azalera dauka, eta hiru plataformek osatzen dute "street" gunea; laugarren

plataforman, "pool" eremua kokatzen da.

Gunean, gainera, argiteria eta hiri altzariak ezarri dira. Indar handiko argiteria jarri da, farolek eta pistak zuzenean argitzen dituzten posteez osaturik.

Obra zaila

Obretako ordezkariak azaldu du obra konplikatuak izan direla, "skateko pistetako guneetan hormigoizko berdintze berezia gauzatu behar zelako eta hartarako eguraldi lehorra behar zelako; hari, kostetako baimen-arazoak, ingurunearen azpian dauden zoladuren eraispenak eta abar gehitu behar izan zaizkio".

Paezek aipatu duenez, sarbide perimetral bat paratuko da skateko pisten inguruan, parkeko gainerakotik eta haur-jolastokitik banantzearekin, betiere segurtasuna hobetzeko asmoz.

Dena prest dagoenean, aurreikusia dago gunea inauguratzeko jai bat egitea, skateko erakustaldi-motaren bat barne.

Mintzalaguna egitasmoan, inoiz baino lagun gehiago

09/10 ikasturtean 99 lagunek parte hartu dute Irun Irutenek antolatzen duen Mintzalaguna egitasmoan, orain arteko kopururik handiena, beraz.

Euskara maila jasoa duten ikasleei klastetik kanpo mintza praktika egiteko aukera ematea da jardueraren xedea. Hartara, mintzalagunetz (euskaldun osoak) eta mintzakidez (ikasleak) osatutako taldeak eratu ziren ikasturte hasieran, eta asteen behin bildu izan dira zernahitaz hitz egiteko. Ikasleek esperientziaren inguruko balorazio oso ona egin dute.

Halaber, hizkuntzaren erabilera sustatzeko hainbat ekintza osagarri burutu dira; hala nola, irteerak eta tailerrak.



Mintzalaguna egitasmoko zenbait parte-hartzaile, Arditurriko meategietara txangoa egin zutenean.

Loidi bekara proiektuak aurkezteko oinarriak hedatu dira

Irungo Udaleko Euskara Arloak bi urtean behin antolatzen duen Jose Antonio Loidi ikerketa bekaren oinarriak zabaldu ditu jada. 2010. urteari dagokion deialdian, proiektuak irailaren 6tik 24ra aurkeztu behar direla ezartzen da.

Beka honek omenaldi bat izan nahi du adopzioz eta bihotzez bidasorra zen Jose Antonio Loidi ospetsuarentzat, eta, haren ereduari jarraiki, ikerketa suspertu eta bultzatu nahi du berak hain maite zuen hizkuntzaz.



Honako hauek dira ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Bekaren iraupena 12 hilabetekoa

izango da eta eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Norbanakoek edo taldeek eska dezakete.
- Goi mailako titulazioa eta EGA agiria, edo baliokidea.
- Ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du.

ACUBIk eta KIUBek interneteko sare sozialen bidezko iruzurren gorakadaz ohartarazi dute

ACUBI Bidasoako Kontsumitzaileen Elkarteak eta KIUB Kontsumo Irungo Udal Bulegoak interneteko sare sozialen bidez gauzatzen diren iruzurrak bost bider handitu direla ohartarazi dute.

✓ Iruzurrak joko, lehiaketa eta sustapenen bidez egiten dira.

✓ Sakelako telefonoaren zenbakia emate-rakoan, nahi gabe telefonoetarako deskar-gatze-plataformetan alta ematen da.

✓ Internautek astero 15 mezu ere jasotzen dituzte.

✓ 18 euro inguruko iruzurrak izan ohi dira; baina milaka kasu ez dira salatzen, zenba-tekoa txikia delako.

✓ ACUBIk eta KIUBek berehala baja emate-a gomendatzen dute.

Iruzur egiteko modua oso antzekoa da kasu guztietan. Adibidez, erabiltzailea adimentest bat egiteko gonbidapena jasotzen du, bere beste lagun batzuek egin dutelako aitzakia faltsua baliatuz. Emaizta jaso ahal izateko telefono zenbakia eskatzen zaio, baina erabiltzaileak jasotzen duena sms bat da. Mezu hori birbidali behar du, 30 zentimo ordainduz. Emaizta ez jasotzeaz gain, jakin gabe alta eman du telefonoetarako deskar-gatze-plataforma batean, zeinak, egunero zenbait mezu jasotzearen truke, mezu bakoitzeko 30 zentimo kobratzen dion.

ACUBIk eta KIUBek "Alerta Premium" deritzan sistema hauekin erne ibiltzea komeni dela adierazi dute, sakelako telefonoko



spam-ak besterik ez direlako. Telefono kon-painiek bitartekari lana egiten duten arren, kobratzeaz arduratzen baitira, arazoari bizkar ematen diotela salatu dute kontsumitzaileen elkarteek.

Bestalde, Kontsumitzaileen Federakuntzak sakelako telefonoan jasotako mezuen bitartez opariak egokitu zaizkiela jakinarazten zaienen kexa kopurua handitu dela azaldu du. Hoteletan gauak, bidaiak eta kotxeak ere dohainik eskaintzen dituzte, euro bat baino gehiago balio duen sms bat igortzearen truke. Lehenengoa bidali ondoren bigarrena eskatzen zaio, eta hurrengoa... harik eta bezeroa iruzurra dela konturatzen den arte. ACUBIk eta KIUBek sakelakoaren zenbakia internetez sekula ez ematea aholkatzen dute. Parte hartu nahi izatekotan, sustapenaren baldintzak irakurri eta inprimatzea komeni da.

Oparien kasuan, gogoratu mezuak birbidaltzearen arriskuaz.

Azkenik, iruzur egin badizute, deitu telefono konpainiari zerbitzuan lehenbailehen baja emateko

Bidasoako Kontsumitzaileen Elkarteak (ACUBI) argitaratutako testua, Irungo Udalaren laguntzaz

Pubertaroa III: erek

Komenigarria izaten da pubertaroan ematen diren aldaketei buruz hitz egitea haurrekin, helduen erantzun lasaiak eta zintzoak lagunduko baitie sexualitatearen garapen afektibo eta sexual positiboa izaten. Beraz, lehenik, hona hemen gazte baten gogoeta; ondoren, egoki erantzun ahal izateko, ohikoena diren galderak bildu ditugu:

MIKEL, 13 URTE

Hemen nago, ohean, eta gaur ere ametsetan gailunboak busti egin ditut. Ez da pixa, zakilatik atera arren. Beste isurketa bat izan da. Hau irristakorra da, usain goxoduna eta zapore...

Bestetik, zakila likatsu dudala esnatu naiz. Badakit normala dela, baina nire zakila ez kontrolatzeak kezkatu egiten nau. Maiz zakila tentetzen zait, edonoiz, beno... hori ere ez da horrela: batik bat, gogoetan aritzen naizenean... Pentsatzeko era ere aldatu egin dut, orain ez ditut neskak lehen bezala ikusten, ez. Ni beti ongi moldatu naiz neskekin. Baina orain pubertaro mada-rikatu honekin dena nahasten zait, batez ere Maitanerekin dudana harremana. Ez dakit maitasuna den edo grina hutsa, baina ikusten dudana bakoitzean lotsatu eta gorritu egiten naiz. Gainera, fantasiak eta beroaldiak izateari ezin diot utzi... Haren irudia burura datorkit, eta hamaika istorio, eta nire eskua haren alkandora azpitik sartzen dudala irudikatzen dut, bularren larruazala sentitzen dut, haien bolumena... eta zakila dantzan hasten zaidan bitartean, ni...

Izugarrizko amets goxoetan sartzen naiz; muxuak, laztanak, usainak... eta zakila dantzan... masturbatu... isuritu... eta gozatu... Batzuetan ez dut masturbatu beharrik

ere, isurketa berez badator, ezin dut neurtu, gauean ere bustita esnatzen naiz. Beno, egia esan orain truku bat dut: lo aurretik masturbatzen naiz eta horrela gero lasaiago nabil. Gorputza aldatzen ari zait; ahotsa, pikorrak azalean, ileak... ai! Badakit normala dela, baina zein arraro sentitzen naizen!

Bestalde, Maitanek sutan ipintzen nau; baina gorputz eder horretan ni bezalako pertsona bat dagoela sentitzen dut, pentsatu, maitatu, gorrotatu, eman, lagundu... egiten duen pertsona bat, eta horregatik ere badut grina. Arraroa naiz, badakit, denek esan didate. Beti negar egiten duten mutiko horietako bat izan naiz ni. Gurasoek beti esan didate negar egiteko, triste edo minez nengoenean. Goxo besarkatu eta han egoten nintzen negarrez, pena pasatu arte. Oraindik egiten dut, gutxitan, egia esan; baina, a ze plazerra den mina askatzea eta norbaitek min hori jasotzen duela sentitzea!

Ez da egia, mutil gehienak ni bezalakoak direla uste dut; baina itxura egin behar dute taldean lekua izateko. Ez da bidezkoa!!! Neskek beti beren eskubideen alde egiten dute, beren eguna ere badute, eta guk? Gizonok, zer? Zenbat gauza aldarrikatu behar dugu guk?

Gizonok sentikorrek gara, negar egiten dugu, asko eman dezakegu eta zaindari bikainak gara. Maiz lagundu egiten dugu, eta antzerki edo pelikula batean malkoak isurtzen ditugu. Zergatik izan behar dute



zioak eta isurketak



horiexek emakumeen ezau-garriak? Zergatik pentsatu behar dut zakilarekin, zergatik neska askorekin larrua jo, beste mutikoek ni gizontzat har nazaten? Ez al dira haiek denak aldarrikapen nahikoa geuk ere egun bat izateko? Ez al ditugu guk tratu txar psikologikoak ere pairatzen? Sexu indartsua garenez, bada, izorra hadi!!!

Gorputz osoarekin gozatu nahi dut. Badakit zakilak agintzen duela, baina elkar ezagutu eta elkar konpartitu nahi dut, plazerra eta eguneroko gauzatxoak. Ez naiz neska estereotipatu bat ikusi eta zakilak deituta bere atzetik doan gizontxoan izan nahi. Gizona naiz, gizon sentibera. Hortaz, gizona naiz eta harro nago!!!!

OHIKO GALDERAK:

Zer da erekzioa?

Erekzioa zakilaren tentetze eta gogortze prozesuari deitzen diogu. Erekzioa oso umetatik ematen da eta zahartzaroraino irauten du. Aldi bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta pubertaroan badu helduaren sexualitatearen biziarekin zerikusia, sexuheldutasunera iritsi zaren seinalea da, lagun. Batzuetan, inolako arrazoirik gabe izaten dira erekzioak; baina, besteetan, ditugun pentsamenduekin erlasionaturik daude. Istorioak irudikatzen ditugu: muxuak, laztanak, pertsonak biluzik, ukimena... Beste batzuetan, zakila laztandu eta erekzioa sortzen dugu, edota pentsamenduak eta zakilaren igurpenak batera gerta daitezke.

Gizonengan nagusitzen den hormona –testosterona- nerabezaroan kantitate handiz igortzen dituzte gonadek, hots, barrabilek; ondorioz, gorputza eta adimena aldatu egiten dira. Hodi deferenteari esker, zakila barrabilekin komunikatzen da. Barrabiletan, hormonez gain, hazia sortzen da, eta hodi deferentetik kanporatzeko bidea izaten du. Erekzioak semenari ateak zabaltzen dizkio, guri semenak atera nahi duela adierazten digun bitartean...

Zer da hazi isurketa?

Semena kanpora ateratzeari deitzen diogu hazi isurketa, eta hau nahita edo nahi gabe gerta daiteke. Semena beti sortzen da, eta kanporatu behar du; beraz, masturbatuz ateratzen ez bada... berez aterako da.

Pubertaroan sartzen garenean gaueko poluzio edo gaueko hazi isurketak ematen dira. Amets erotikoa izaten ditugu eta, erekzioa izanda, isurketa. Hortaz, jaikitzean pijama semenaz bustita dagoela ohartzen bazara, ez pentsa gau bero eta erotiko bat irudikatu duzula; gauza da zure haziak aurkitu duela ateratzeko bidea.

Bestetik, hazi isurketa ere nahita eragin daiteke. Horrela denean, masturbazioaz mintzatu ohi gara. Nork berea eraginda, kitzikatuz edo lagun baten laguntzaz ere ematen da.

Gizonen kasuan, isurketak orgasmoa dakar. Hasieran egoera ez kontrolatzea guztiz normala da. Denborak eta esperientziak, aurrera egin ahala, egoera normalki eta atseginez bizitzen lagunduko dute.

**KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA**

kuttun@kuttun.net

Aire berriak arnastea oso osasungarria izaki, aire berrien bila ez ezik, eguzkiaren bila ere atera naiz/gara opor garai honetan. Lau asteko oporraldiaren lehena Andaluzian eman eta gozatu dugu

Andaluziari nire gorazarrea!

Andaluzian ibili gara, Cadizen, hain zuzen ere. Cadiz probintzian eta Jerez hirian. Hutsa aurkitu dugu Jerez. 40 gradu inguru “dastatu” dugu ia egunero. Bagenekien. Nahiak eta halabeharrak hartara eraman gintuzten. Izan ere, krisi garaia aurki dakizkioke bere onurak. Sistema neurrigabe honen hainbat abantailaz goza daiteke, hots. Eta halaxe egin dugu. Hotel eroso eta ederra profitatu dugu ohiko prezioaren herenean edo laurdenean. Jerezen egonik ere, mugitu gara: Cadiz hiriburua, Conil de la Frontera, Zahara de los Atunes, Sanlucar de Barrameda, Chipiona, El Puerto de Santamaria... Bahía de Cadiz-en ibili gara, hots. *Pueblos blancos* delakoetan barrena ere menturatu gara, Arcos de la Frontera herrian egon gara, baita Algar-erraino iritsi ere. Mendialdeko beste ibilaldiak ere bazeuden; etsi egin behar izan dugu, eguzki-galdara goian genuela-eta. Costa de la Luz-en argiaz gozatu dugu batez ere. Eguzkiaz gozatzea zailagoa baita. Bero baita Andaluzia. Dena den, eta egiari zor, oporretan ez dago berorik. Eguzki zitalenak itzal ederrena baitu bere. Eguzkiaren itzalaz profitatu dugu, baita janari goxoaz ere. Gorputza sanotu dugu, baina burua zabartu gabe. Ahantzi gabe oporraldiek pentsamenduak berritzeko balio dutela. Galdera xumeak egin dizkiot nire buruari, hala nola: zergatik horrenbeste herri *de la Frontera* delakoarekin? Zergatik deitzen diote Cadizi *Tacita de plata*? Cadizera joan aitzin ez nuen Irtenet-en arakatu. Ez zait gustatzen. Itzultzean



ezagututako lekuen ezaugarriak arakatu ohi ditut. Artean, pentsaketan, hona aburu zenbait. – Europako iparraldeko herrialdeetara bidaiatu nahi nuke sarriago. Alabaina,

Euskal Herri euritsu honetatik ateratzean, udaldian bederen, eguzkiarekin batu beharrak manatzen du. – Andaluziak eguzkia eskaintzen du. Ez eguzkia bakarrik. Turistak hartzen dituen lurraldea izanagatik, Andaluzian beti aurkitu dut identitate azkarra. Halaxe aurkitu ere Cadizen. Espainiako Estatua osatzen duten erkidegoen artean, identitate andaluziarra egungo ereduari hobekien egokitzen zaizkionetako bat iruditzen zait andaluziarrena. Katalana, galiziarra eta euskalduna baino hobetoago egokitzen dela esan nahi dut (puntu honek artikulu osoa behar du gutxienez. Hurrengo batean, agian). – Andaluziarrak adeitsuak dira. Sinpatikoak eta umoretsuak, alegia. Badakit hori esatea topikoa dela. Baina, hara, ez zait iruditzen turismoaren dibisen truk, esaterako, katalanek baino gehiago “saldu” dutela euren identitatea. – Hainbat politikari eta intelektualen topikoa ere dabilkit pentsamenduan. Hau da, “nazionalismoa bidaiatzen sendatzen dela” esaera tontoa. Eta pentsamendu hau ere berretsi dut: bidaiatzekotan, Estatuaren jabe diren nazionalistek gehiago bidaiatu beharra daukatela, beren baitan –gordean eta dismulan– daramaten nazionalismoaz jabetu daitezten. Artean, nire gorazarrea Andaluziari!

MIKEL ASURMENDI

Irakurle gaztea, zuri ari naitzaizu. Garaian garaiko literatura duina bila eta bila ari den idazlea duzu *Mundua lo dagoen bitartean* liburuaren egilea. Zatoz liburura, konektatu uhin berriekin.

Literatura duinaren bilaketan

Mundua milurteko berriarekin batera zeharo aldatu da. Udaldian, mundua –jendea– lo dagoen bitartean, egun-argitan dago. Mundua lo zegoen halako batean, oporraldia hasi berria nuela, Patxi Zubizarretaren *Mundua lo dagoen bitartean* topatu nuen apalategian. Bi liburu motaren bila nengil: obra klasiko bat eta liburu “arin” bat eskuratu nahi nituen. Bigarrena, literaturaren eremura heldu berria den gazteari eskaintzeko.

Liburu piloa aldaratu nituen apalategietan. Irakurriak batzuk, irakurriak eta iruzkinduak bestetzek, eta labetik atera berriak hainbat. Batetik, Gustave Flaubert-en *Madame Bovary* apartatu nuen. Lerro hauek izkiriartzean akitzeaz dudana. Zubizarretaren *Mundua lo dagoen bitartean* liburuarekin batera apartatu nuen hori ere. Zubizarreta idazle kuttuna dut. *Jeans-ak hozkailuan* eta *Barrikadak* nobelen zaporea eta zirrara bihotzean eta gogoan darमतzat.

Egia erran, apalategiak nahasten hasi nintzenean, poesia liburu bat erdi irakurria nuen. Hura ere akitu dut. Zazpi narrazioz osatutako liburuaren erdian ere geratua nintzen aurrera egin ezinik, bada, hura ere akitu dut.

Mundua lo dagoen bitartean irakurtzen hasita, hara, “hauxe duk bilatzen huen liburua” esan nion nire buruari. Egia zor, irakurtzen hasitakoan liburuak ez zizkidan zapora eta zirrara apartekoak eragin. Liburuko Karlos Fisher protagonistata eta irrati-esatariaren hitzak irakurtzean, *Beste*



Liburua: *Mundua lo dagoen bitartean*

Egilea: Patxi Zubizarreta

Argitaletxea: Txalaparta

gu irrati-saioaren Dani Arizalaren ahotsarekin akordatu nintzen. Irrati-iratzargailua aktibatzen dudanean, saioaren sintoniarekin lokartu izaten naiz ia-ia gauero. Ez dut irrati-saioa gutxietsi nahi horregatik. Ezin dut gutxietsi, ez baitut behin ere saioa ganoraz entzun.

Egia erran, itxaropen handirik gabe jarraitu nuen Zubizarretaren liburuarekin. Egia zor ere, aurreiritziek betetzen dute gure/nire burua. Bai eguneroko bizitzan eta lanean, bai, kasurako, literaturaz jarduten dugunean.

Liburuaren hainbat pasarte arinak iruditu zitzaizkidan hasie-

ran, beste batzuk bete-betekoak. Istorioa bukatzean Epilogoak zekarrela ohartu nintzen. *Epilogoak* bete ninduen. Areago, egilearen *Gibel solasa* ere bazeukan. Irakurketa hastean ez nintzen horretaz jabetu. Liburua akitzean, liburuaren egitasmoaz jabetu nintzen osatoro. *Mundua lo dagoen bitartean* amaitzean beteago eta osatuago nintzen. Liburua akitu bitartean mundua lo egon zen. Bistan da, bistan denez, ez gara *Madame Bovary*-ren garaian bizi. Patxi Zubizarreta jabetu da horretaz. Eta horregatik eta bestelakoengatik, bila eta bila ari da. Literatur gazte zuri, irakurle helduago bilakatuko zarenerako, garaian garaiko literatura duina zuri eskaintzeko, *Mundua lo dagoen bitartean* adina duin.

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Abuztuak 14

- Euskal Jai frontoian, 22:00etan, Sunkers magoaren saioa.

Abuztuaren 15era arte

- Euskadiko Kutxan, Euskal Jiraren inguruko argazki erakusketa.



Abuztuaren 31ra arte

- Plaiaundiko Ekoetxean, IL DUOMO arte ikastegiko ikasleen obrak ikusgai.

Abuztuak 17-30

- Euskadiko Kutxaren aretoan, Susana Recio Pascual artistaren pintura erakusketa.

Abuztuak 19



- Eskoleta kalean, 22:00etan, ICE AGE III filma proiektatuko da.

Abuztuak 27

- Eskoleta kalean, 22:00etan, Anna Valentina hirukotearen jazz kontzertua.



Abuztuak 31 - Irailak 12

- Euskadiko Kutxaren aretoan, Irungo Argazkilaritza Elkartearen erakusketa.

Abuztuaren 29ra arte

- Amaia KZn, Angeluko udal bildumako arte garai-dikedeko obrak.
Egileak: 30 artista inguru.

RAMBIÉ Paul



Artista: Paul Rambié

Irailak 14 - 26

- Euskadiko Kutxan, Mikel Benito Rodriguezen pintura eta eskultura erakusketa.

Zinema Lakaxitan

Lakaxita gaztetxeak *Udako Zinema* egitaraua antolatu du.

Noiz: Ostegunero
Non: Lakaxitan (Anaka kalean)
Ordua: 21:00etan.

Bidasoako Done Jakue bidea

Done Jakue urtea ospatzeak Santiagora bidean gure eskualdetik igarotzen diren erromes kopuruaren handitzea ekarri duela eta, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak eskuorri bat argitaratu du. Erromeseei Done Jakue bideak Txingudin zehar egiten duen ibilbidea azaltzea da helburua. Halaber, haien egonaldia erraztearren, argitalpenean leku turistikoaren eta zerbitzu interesgarrien berri ematen zaie: erromesen aterpea, osasun zentroa, bisitatzeko tokiak, eta abar.



Jarduerak haurrentzat Oiasso Museoa

- Egunak: Abuztuaren 3tik 20ra.
- Orduetgia: 10:30 - 13:00.
Oiasso Erromatar Museoa udako jarduerak antolatu ditu ume eta gazteentzat. Helburua da Oiasson erromatarren garaia eta arkeologia ezagutaraztea, betiere modu dibertigarri eta pedagogikoan. Jarduerak nahi duten hizkuntzan egin ahal izango dituzte: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez.



Tiësto Dj-a Ficoban

muga music
meeting
2014-2015



MUGA MUSIC
MEETING JAIALDIA

Music Meeting-a bereziki musika elektronikoa maite dutenentzako jaialdia da.

Noiz: Abuztuaren 13an

Non: Ficoban

Sarrerak: musikaze.com
webean, 40 euro.

Leihatilan: 45 euro.

PARTE HARTZAILEAK:

Tiësto + Bloody Beetroots
Death Crew 77 + Pole
Showcase (Óscar Mulero +
Christian Wünsch + Exium +
Reeko) + Ben Sims +
Crookers + Technasia + Dj
Bee + Montxo + Patt + Finzy
+ Chus Liberata + Chema
Nox + baieztatzeko besterik.

Argibide gehiago hemen:
www.mugamusicmeeting.com

Aldizkariak

Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- **NICOLAS GUERENDIAIN, IRUNGO ERREPUBLIKARRAK** Elkarteak Errepublikar I. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia: Askatasuna. Egile bakoitzak gehienez 3 lan aurkez ditzake. Epea: Urriak 10.
www.asociacionrepublica-nairunesa.org

- **DONOSTIAKO 0 POBREZIA** plataformak kartel lehiaketa deitu du aurtengo urrian burutuko den pobrezia-aren aurkako astea iragartzeko. Epea: Irailak 5.



- **IRUN HIRIA KUTXA LITERATUR SARIAK.** Epea: Irailak 30.
- **LABURMETRAIA LEHIAKETA U4ENERGY.** Energia aurrezte-ari eta eraginkortasunari buruzko 3 minutuko bideoak. Epea: Abuztuak 31.

Bekak



- **2010/2011 IKASTURTEKO BEKEN DEIALDIA.** Unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketak batzuk egiteko. Epea: Urriak 15.
- **2010/11 IKASTURTEKO LANKIDETZA BEKAK.** 175 beka unibertsitateko ikasketekin batera lankidetzan jardun nahi dutenentzat. Epea: Abuztuak 31.

Lana



- **PROIEKTU ARDURADUNA EKEN.** Euskara eta frantsesa badakizu, apunta zaitez

harpidetza



Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska lehiaguru, eta astero bidaliko dizugu informazioa sare etxera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZENAK.

HEKIDEA.

P.N. BERRIA

POSTA ELEKTRONIKOA.

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pídemelo y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

IRUN-ERREPUBLICARRAK
 Irun-errepublikar I.
 Argazki Lehiaketa
 Antolatzen du.
 Gaia: Askatasuna.
 Egile bakoitzak gehienez
 3 lan aurkez ditzake.
 Epea: Urriak 10.
www.asociacionrepublica-nairunesa.org

Euskal Kultur Erakunde
lan egitera abuztuaren 16a
baino lehen.



Gaztezulo aldizkaria GIBen da.

- HAURREN ESKI IRAKASLEA
BEHAR DA SUITZAN. Azarotik
apirilera arte. Baldintzak:
Ingelesez mintzatzea.
amverbier@leselfes.com

Ikastaroak



- 2010/11 IKASTURTEAN ZINEMA,
KAMARA ETA GIDOI ikastaroak
Donostian, haur, gazte
nahiz helduentzako.
www.detrasdelacamara.com



LAN ESKAERA. TXOFERRA.
Baimen guztiak.
Esperientziaduna.
646 432399.

Zure txokoa



- KONPARTITZEKO
etxebizitza behar dut
Irunen. 676 281469

- HAURREN EDO ZAHARREN
zaintzaile lana egiteko prest
nago. 685 309265

Bidaia teka

BIDAIA ANTOLATU
NAHI DUZU?

Gazte
Informazioaren
web orrian
behar duzun
guztia
topatuko duzu:
mapak, aldizkariak, gidak,
nola eskuratu deskontu-
txartelak, garraioa, osta-
tuak, aholkuak...




www.irun.org/igazte

Etxebizitza bat hartuko duzu errentan?

Ba al dakizu altzariak
dituen etxebizitza batera
joaten bazara INBEN-
TARIO bat erantsi behar
zaiola kontratuari?

Kontatuko dizugu nola
egin hori, eta alokatzeko
kontratu baten eta
inventario baten eredu
bat ere eskainiko dizu-
gu. Hori guztia ACUBIko
Zerbitzu Juridikoen
eskutik.

Besterik nahi? Eskatzen
ezazu, bada!





Biltegi eta bulegoak:
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

Denda:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.